

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA
Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 36.eko erkidegoari onartutako laguntzen ehuneko 45 ordaintzea, eta ehuneko 50 erkidego horretan zaurgarritasun-egoeran dauden pertsoneri, Vitoria-Gasteizko Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdiaren barruan

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Lehena. 187.004,89 euro ordaintzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko erabakien bidez Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 36.eko jabe-erkidegoari emandako laguntzen ehuneko 45i dagozkionak, lanak egiteko proiektuen ordainsariak ordaintzeko zenbatekoak kendu ondoren, honen arabera:

ERKIDEGOA	EMANDAKO LAGUNTZA	ORDAINDUTAKO PROIEKTUA	LEHEN ORDAINKETA, % 45
Biasteriko taldearen kalea 36	472.503,63 €	25.621,74 €	187.004,89 €
GUZTIRA			187.004,89 €

Bigarrena. 3.908,92 euro ordaintzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 24ko erabakiaren bidez Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 36.ean zaurgarritasun-egoeran dauden jabeei emandako laguntza gehigarrien zenbatekoaren ehuneko 50i dagozkionak, honen arabera:

ESKATZAILEA	ZENBATEKO GUZTIRA	LEHEN ORDAINKETA, % 50
16270630Q	3.608,23 €	1.804,12 €
33917066R	4.209,60 €	2.104,80 €
GUZTIRA		3.908,92 €

Hirugarrena. 21 Zabalgunea SARI baimena ematea aipatutako zenbatekoak ordaintzeko, deialdiaren oinarrien 36. artikuluan xedatutakoa betez.

Laugarrena. Hiri Ereduren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailako zinetziari eskuordetzea egin beharreko gainerako ordainketak baimentzea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko eta maiatzaren 24ko erabakien bidez emandako laguntzen deialdiaren oinarrien 37. artikuluan jasotako ordainketa-sekuentziaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 28an

Alkate-lehendakaria
MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA